

## Hainbat Hirigintza baimenen izapideak bizkortzeko prozedura onartu du Andoaingo Udalak

- Obra txikien barruan kategoria berri bat ezarri da eta, hala, bertan agertzen diren izapideetan nahikoa izango da obra jakinaraztea.
- Andoaindarrek udalarekin dituzten hartu-emanak erraztea eta bizkortzea da neurri honen helburu nagusia

**Andoainen, 24-05-07.-** Jadanik indarrean dago obra txikien aurretiazko komunikazioa. Neurri berri honen helburua da hirigintza baimenen izapideak azkartzea, eta herritarren itxaron denborak eta administrazio izapideak murriztea. Aurretiazko jakinarazpenarekin, herritarrak ez du lizentzia eskuratu arte itxaron beharko, eta aurkeztearekin batera abiarazi ahalko ditu lanak. Horrela, kategoria honetako obretan, orain arteko itxaron denborak desagertuko dira, eta lanak egiteko epeak azkartu.

Honetarako, obra txikien barruan kategoria berri bat ezarri da; bertan eragin oso txikia duten obra txikiak sartzen dira. Ordenantza udal webgunean eskegita dago (*udala > araudiak eta ordenantzak > zerbitzuak eta hirigintza > Obra txikien aurretiazko jakinarazpena arautzeko Udala Ordenantza edo <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/04/08/c2402184.pdf>*), eta bertan kontsultatu daiteke kategoria honetan sartzen diren obrak zein diren. Bertan sartzen ez diren obrak, ohiko obra txikien lizentzia eskatu beharko dute.

Eskaera hau egin ahal izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa da:

- 1 - Honetarako prestatutako eskaera orria beteta, bertan eskatutako datu guztiekin (eskaera orria Atarian, zein Egoitza Elektronikoan aurkitu daiteke).
- 2- Egin beharreko obra guztien aurrekontua, esku hartuko duten gremio guztiak barne, izango dira.
- 3- Fatxadetan ateak eta leihoak ordeztuz gero, itxi turen ezaugarriak ikus daitezkeen egungo egoeraren argazkia ere aurkeztuko da (gutxienez 15 x 20 cm). Itxitura berriek ezaugarri horiek mantendu beharko dituzte, eta ezingo dira inola ere aldatu.